

# Ameriketako xarmaz, umorez eta errealitateari buruzko gogoetaz beteta dator Xolaren istorio berria

Bernardo Atxagak aspaldi sortutako pertsonaia maitatuaren azken abentura aurkeztu du. Xolak harro erraten du txakur librea dela, baina Ameriketako izebak erakutsiko dio gauzak ez direla uste bezalakoak.

Maidier IANTZI | DONOSTIA

Ikusmin handia piztu zuen atzo Xolaren saileko laugarren liburua, "Xola eta Ameriketako izeba" izenekoak, Mikel Valverde marraztutako txakurtxoak jende anitzek maite duen seinale. Istori honetan ere ez da falta umorerik eta errealitatearen gaineko hausmarketarik, haur literaturan nagusi den fantasiaren aitzinean errealismoaren aldeko hau-

tua egiten baitu Bernardo Atxagak, anitzez aberatsagoa delakoa. «Gidatzen zoazela, nahi baduzu bat-batean kristala ikusten duzu bere orbanekin, baina normalean atzean dagoenari egiten diozu so: paisaiari. Hori da pertsonaia egiten duen lana; marrazkia bide bat da atzean dagoena ikusteko», azaldu zuen.


Idazle asteasuarrak Rafael Sanchez Ferlosioren hitzekin ekin zion aurkezpenari. Honek

zioen josi eta josi egiten zuela, ez orain jertse bat edo gero gal-tza batzuk eginen zituela erabakiz; bere ideia bakarra jostea zen, eta horretan segitzea. Atxagak ere sarri jostun gisa ikusten du bere burua: bere ideia idaztea da. Batzuetan poema bat ateratzen da, bertzetan nobela baten hasiera, gerta liteke deus ez sortzea ere.

Badira sei-zortzi urte Atxagak ipuin honen lehenbiziko bertsioa idatzi zuela, baina tekniko-ki egokia iruditzen arren, ez zen betiko Xola eta baztertu egin zuen. «Doinu bat gogoan duzuean eta kantatzen hasi eta barruan duzuna ateratzen ez zai-zuean bezala izan zen. Tartean 'Xola eta Angelito' idatzi nuen, eta gero Ameriketara joan nintzen. Egun batean, cow boy bat ikusi nuen txapel txuri eta guzti, eta osagai hau lehengo bertsioan sartuz gero agian bidea egon zitekeela pentsatu nuen. Beste bertsio bat egin nuen, eta oso pozik nago».

## Aurreiritziak dakartena

"Xola eta Ameriketako izeba" ipuinean pertsona batekiko aurreiritziak izatean zer gertatzen den azaltzen da. Izebaren bisitarrekin etxea infernu bilakatuko zaiola uste du txakurrak, baina gero zue da bietan buruan zituen estereotipoetara hobekien egokitzen dena? Zein da matxistena? Xola bera. Librea zela erraten zuen harro telebistan; ordena maite duela ohartzen da, ordea. Harrotasun hori hagitz erreal dela adierazi zuen idazleak. Ez hori bakarrik: Asteasun bazuen Xola izeneko txakur bat, beltza zen, baina liburuiko protagonista bezala tente-tente ibiltzen zen, gero hagitz koldarra bazen ere.



Bernardo Atxaga, atzo Donostian. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

## IDEIAK, FRUTAREN GAI ELIKAGARRIAK BEZALA

Xolaren istorioa mundu demokratiko batean gertatzen dela nabarmendu zuen egileak. Bertako familia ez da arrunta: txakurraren jabea, Grogo, bakarrik bizi den gizon bat da eta eskobatu eta etxeko lan guztiak betetzen ditu. «Hau ez da hain arrunta eguneroko bizitzan», ohartarazi zuen. Castillako Villamediana herrian, «Obabakoak» idazten ari zela egon zen etxean, edozeinek ikus zezakeen kanpotik, eta harrikoak egiten ari zela, haur batzuk pasatu, eta hala aditu zien: «Begira, emakume bat bezala!».

Modu sOtilean, alde pedagogikoa zaintzen ahalegintzen da asteasuarra bere ipuinetan.

Paul Valeryk zioen ideiak egon daitezkeela testu batean, baina substantzia elikagarriak frutan bezala, ezkutuan, ez konturatzeke moduan, eta Bernardo Atxagaren asmoa ere hori da. «Bestela, forma bakarrik bada, apaingarri hutsa da».

Valeryren aforismoak irakurtzea aholkatu zuen; bertzeak bertze, ulertzen zailak direnez, umiltasuna hartzen laguntzen dutelako, eta idazle honen bertze erran bat ekarri zuen gogora: mamia eta forma ez dira obra batean gorputza eta arropa bezala hartu behar, gorputza eta arima bezala baino; ez dira agerian egon behar. M. I.

## Donostiako Musika Hamabostaldia Quincena Musical de San Sebastián

Abuztuak 7 - 31 Agosto 2011

### AUDITORIO KURSAAL

ABUZTUAK 8/10 AGOSTO 19:00  
"El barbero de Sevilla", G. Rossini  
Joan Antón Rechi, eszena-zuzendaria  
Andrés Orozco Estrada, musika-zuzendaria  
Orquesta Sinfónica de Euskadi  
Coro Easo  
José Manuel Zapata (Almaviva), Manuela Custer (Rosina), Lorenzo Flagazzo (Basilio), Andrew Shore (Bartolo), Pietro Spagnoli (Figaro).  
Producción original del Theater Freiburg.  
Nueva producción del Festival de San Lorenzo de El Escorial y la Quincena Musical de San Sebastián.

Babeslea / Patrocinaria: Kutxa  
• Precio: 65 / 58 / 54,40 / 43,60 / 10 €

ABUZTUAK 12 AGOSTO 20:00  
Rotterdams Philharmonisch Orkest

Yannick Nézet-Séguin, zuzendaria  
Nicholas Angelich, piano  
"Ma Mère l'Oye (Suite)", Maurice Ravel  
"Concierto para piano nº 2", Franz Liszt  
"Concierto para orquesta", Béla Bartók  
Laguntzailea / Colabora: Cadena SER

• Precio: 55 / 44 / 35,20 / 28,20 / 10 €

ABUZTUAK 13 AGOSTO 20:00  
Rotterdams Philharmonisch Orkest,  
Orfeón Donostiarra,  
Orfeón Txiki

Yannick Nézet-Séguin, zuzendaria  
Karen Cargill, mazzosoprano  
"Sinfonia nº 3", Gustav Mahler  
Babeslea / Patrocinaria: Naturgas Energia

• Precio: 60 / 48 / 39,40 / 30,70 / 10 €

ABUZTUAK 17 AGOSTO 20:00

Orquesta Sinfónica de Frankfurt  
Paavo Järvi, zuzendaria  
Vilde Frang, biolina  
"Finlandia", "Concierto para violín", Jean Sibelius  
"Sinfonia nº 5", Carl Nielsen

• Precio: 55 / 44 / 35,20 / 28,20 / 10 €

ABUZTUAK 20/21 AGOSTO 20:00

"Romeo y Julieta"  
Ballet del Gran Teatro de Ginebra  
Joëlle Bouvier, koreografia  
Serguei Prokoviev, musika  
Laguntzailea / Colabora: Mundo del País Vasco (día 20)

• Precio: 45 / 35 / 28,80 / 23 / 10 €

ABUZTUAK 23 AGOSTO 20:00

Orchestra of the Age of Enlightenment

Coro Easo  
Vladimir Jurowski, zuzendaria  
Alina Baramigova, biolina  
Kim Begley, tenorra  
"Obertura Proscritto", Carl Maria von Weber  
"Concierto para violín", Felix Mendelssohn  
"Sinfonia Fausto", Franz Liszt

Babeslea / Patrocinaria: Banco Gulpuzcoano

• Precio: 55 / 44 / 35,20 / 28,20 / 10 €

ABUZTUAK 26 AGOSTO 20:00

Orquesta Sinfónica de Radio Colonia-WDR

Jukka-Pekka Saraste, zuzendaria  
Boris Berezovsky, piano  
"Tolentanz", Franz Liszt  
"Sinfonia nº 8", Gustav Mahler

Babeslea / Patrocinaria: Antiguo Berri, Riberas del Urumé

• Precio: 55 / 44 / 35,20 / 28,20 / 10 €

ABUZTUAK 27 AGOSTO 20:00

Orquesta Sinfónica de Radio Colonia-WDR

Jukka-Pekka Saraste, zuzendaria  
Jeanne-Michèle Charbonet, mazzosoprano  
Peter Fried, narratzailea eta baritonoa  
"El castillo de Barbazul" (ópera en versión concierto), Béla Bartók  
"Pelleas et Melisande", Arnold Schoenberg  
Laguntzailea / Colabora: EITB

• Precio: 55 / 44 / 35,20 / 28,20 / 10 €

ABUZTUAK 28 AGOSTO 20:00  
Orquesta Sinfónica de Radio Colonia-WDR  
Orfeón Donostiarra

Jukka-Pekka Saraste, zuzendaria  
Jeanne-Michèle Charbonet,  
Gerhild Romberger, Christian Elsner eta  
Michael Volle, abeslariak  
"Friede auf Erden", Arnold Schoenberg  
J. A. Sáinz, abesbatza-zuz.;  
"Schicksalslied", Johannes Brahms;  
"Sinfonia nº 9", Ludwig van Beethoven

Babeslea / Patrocinaria: Euskaltel

• Precio: 70 / 56 / 44,80 / 35,80 / 10 €

ABUZTUAK 30 AGOSTO 20:00

Budapest Festival Orchestra  
Ivan Fischer, zuzendaria

Nikolai Znaider, biolina  
"Danzas húngaras nº 7 y nº 10",  
"Concierto para violín", Johannes Brahms;  
"Sinfonia nº 8", Antonín Dvořak

Babeslea / Patrocinaria: Caja Laboral

• Precio: 55 / 44 / 35,20 / 28,20 / 10 €

ABUZTUAK 31 AGOSTO 20:00

Budapest Festival Orchestra  
Ivan Fischer, zuzendaria

Dejan Lazic, piano  
"Mephisto Walz", Franz Liszt;  
"Blumine", Gustav Mahler;  
"Concierto para piano nº 1", Franz Liszt;  
"Sinfonia nº 1", Tchaikovsky, Gustav Mahler

Babeslea / Patrocinaria: Kutxa

• Precio: 55 / 44 / 35,20 / 28,20 / 10 €

## TEATRO VICTORIA EUGENIA

ABUZTUAK 9 AGOSTO 20:00

Nikolai Lugansky, piano  
"Nocturno op. 15 nº 1",  
"Barcarola op. 60", "Preludio op. 45",  
"Scherzo op. 54", "Nocturno op. 27",  
"Balada nº 4", Frédéric Chopin;  
"Vallée d'Obermann",  
"Jeux d'Eau à la Villa d'Este", "Spesialito",  
"Estudio nº 12 'Ventsca'",  
"Estudio nº 10 'Apasionata'", Franz Liszt

• Precio: 30 / 24 / 19,20 / 10 €

ABUZTUAK 10 AGOSTO 20:00

Cuarteto Casals  
"Cuarteto en sol menor", Luigi Boccherini;  
"Cuarteto nº 4", Béla Bartók;  
"Cuarteto nº 15 en la menor", Ludwig van Beethoven

Babeslea / Patrocinaria: Audi

• Precio: 30 / 24 / 19,20 / 10 €

ABUZTUAK 16 AGOSTO 20:00

Compagnie Thor  
Thierry Smits, koreografia  
Johann Sebastian Bach, musika  
"To the One I Love"

• Precio: 25 / 20 / 16 / 10 €

ABUZTUAK 25 AGOSTO 20:00

Florian Boesch, baritonoa  
Justus Zeyen, piano  
Obras de Mélior y Schumann

• Precio: 30 / 24 / 19,20 / 10 €

ABUZTUAK 28 AGOSTO 20:00

Lawrence Brownlee, tenorra  
Giulio Zappa, piano  
Obras de Liszt, Verdi, Thacker...

Babeslea / Patrocinaria: Juntas Generales de Gipuzkoa

• Precio: 30 / 24 / 19,20 / 10 €

OTROS CICLOS

Jornada Inaugural (Patrocinaria: El Diario Vasco), Órgano, Música Antigua, Jornada Infantil (Patrocinaria: El Diario Vasco), Jóvenes Intérpretes (Patrocinaria: Kutxa), Música Contemporánea...

Sanerren salmenta  
Venta de localidades desde el 27 de mayo a partir de las 11:30

www.quincenamusal.com

Taquilla Kursaal y Victoria Eugenia  
Se podrán adquirir entradas en la taquilla de Victoria Eugenia a partir del 27 de mayo.  
(11:30-14:30 y 17:00-20:00) y en la taquilla del Kursaal solo los días 27 y 28 de mayo y a partir del 7 de agosto (11:30-14:30 y 17:00-20:00)

SERVIKUTXA  
943 00 12 00  
www.kutxa.net

Quincena Musical  
03 33 559 223 700

Quincena Musical / 943 00 31 70 / quincenamusal@donostia.org

Ayuntamiento de San Sebastián / Diputación Foral de Gipuzkoa / Gobierno Vasco  
Ministerio de Cultura